

Berdintasun Zerbitzua		Getxoko Udala
Gaia: BERDINTASUN KONTSEILUAREN BILERA		

Bileraren datuak:

Equna: 2016-06-09 Lekua: Santa Klara Jauregia. Ordua: 17:00 -18:45

Bertaratutakoak:

Bilgune Feminista: Uxune Iriondo

Gizatiar: Begoña Fernández, Marisa Pedrero

Eskuz-Esku: Isabel Pérez

Mujeres con Voz: Luciana Davies

Roda: Clara Lorenzo

Berritzegune: Ana Sofía Gutierrez

EH Bildu: Maite Arraiza

Ciudadanos-Herritarrak: Carlos Escalera

EAJ-PNV: Elena Coria Yanguas

GUK: Paula Amieva

Udal Talde Sozialista: Josefina García

Talde Popularra: Susana De Cos

Kontseiluburua: Keltse Eiguren

Idazkaria: Idoia Eizmendi

Ez dira bertaratu

ELA

Aztergai-zerrenda

- Aurreko akta onartzea
- Ekainaren 28a, gay, lesbianen, transexualen eta bisexualen harrotasunaren eguna
- Jaietako kanpaina
- Galde-eskeak

Batzarrari ekin aurretik, Gizatiarren ordezkariak jakinarazi dute beraien azken batzarra dela Kontseiluan. Izan ere, beraien elkartearen arau bat da honelako espazioetan txandaka parte hartzea. Gaineratu dute ikasteko leku bat izan dela beraiantzat eta gauzak ondo joatea espero dutela. Era berean, Kontseiluak eta emakume elkarteek sustatzen dituzten jardueretan parte hartzen jarraituko dute, nola ez. Berdintasun zinegotziak parte hartzea eskertu die eta erantsi du oso atsegina izan dela beraien batera espazio honetan egotea.

Aurreko akta onartzea

Aurreko batzarreko akta onartu da.

Ekainaren 28a, gay, lesbianen, transexualen eta bisexualen harrotasunaren eguna

Berdintasun teknikariak azaldu du taldeei proposamenak aurkezteko epe bat eman zaiela. Bada, Ciudadanosek proposamen bat egin du, filmen ziklo bat egiteko. EH Bilduk, berriz, proposatu du, batetik, emakume lesbianeiei ikusgarri izaten laguntzea, sarritan gizonezko gayek protagonismo handiagoa izaten dutelako harrotasunaren eguna ospatzeko orduan, eta bestetik, hitzaldiren bat antolatzea transexualitateari buruz, bai helduaroan bai haurtzaroan.

Gukek adierazi du gai hauek urte osoan lantzea beharrezkoa dela, bai eskoletan bai herritarrekin, eta ez bakarrik egun jakin batean, martxoaren 8an jazotzen denez. Gaineratu dute ikastetxeetan filmak jartzea edo hitzaldiak egitea proposatu ahal dela.

Berdintasun teknikariak egiten diren gauzei buruzko informazioa eman du: ikastetxeetan heziketa afektibo eta sexualaren programa lehen hezkuntzako 6. mailan eta DBHko 2. mailan egiten da; urteren batean hitzaldiren bat egin da Transexualitatea despatologizatzeko eguna dela-eta; Gazteria Zerbitzuak urtero zenbait film labur jartzen ditu Zinegoak jaialdiaren barruan; eta aurten, Jabekuntza Eskolaren barruan, genero-arrazoiengatikoz jazarpenari buruzko ikastaroa egin da, LGTB kolektiboari begira, hizlarietako bat Honduraseko transexual bat izanik. Aitortu du gauzak hobetu ahalko lirakeela, baina urtean zehar jarduerak egiten direla.

Berdintasun zinegotziak uste du urtean zehar jarduera asko egiten baldin badira gero, ebaluatzeko orduan, gehiegi direla esan ohi dugula.

Berdintasun teknikariak ekainaren 28an egin ahalko lirakeen jarduera batzuk aipatu ditu: hitzaldia transexualen gurasoen Chrysallis elkartearekin; lesbianeiei buruzko film bat edo *De Berta a Teo* dokumentala, protagonistaren edota zuzendariaren presentziarekin.

Azkenik, film bat jartzea erabaki da, eta transexualen gaia urrirako uztea.

Jaietako kanpaina

Berdintasun zinegotziak azaldu du taldeetako batek ere ez duela jaietarako proposamenik egin. Jakinarazi du Beldur Barikek planteatzen duela azaroari begira bakarrik lan ez egitea, eta kanpaina urte osoan jorratzea. Interesgarri deritzon gida bat diseinatu da baina uste du jaietan, formatu hori edukita, paperontzira joateko arriskua daukala. Berak uste du jai-giroa agian ez dela egokiena sentsibilitatea sortzeko, jendea jaien "txiparekin" dagoelako eta ez duela beste ezeren berri entzun nahi. Esan du iaz ahaleginak egin zirela, bai diru aldetik bai langile aldetik, eta ez zela hainbesteko sentsibilitaterik sortu. Horregatik, urte honetarako kartel eta pegatinen kanpaina bat egitea proposatu du, jai parekideak, sexu-erasorik gabekoak eta erantzukizun partekatua dutenak ospatzeko.

GUKek proposatu du kanpainaren ideia mutileri zuzentzea, uste baitu erasoak gertatzen direnean beraiek ere erantzukizuna dutela sentiarazi behar zaiela. Pentsa dezatela, "zer egingo nuke nik egoera honetan?". Txosnekin hitz egitea proposatu du, erasoak zer diren azaldu ahal izateko, eta jai batzordeekin ere bai.

Bilgune Feministak esan du beraiek jai batzordean daudela eta lan hori egin egiten dela.

GUKen ustez helburu nagusia mutilengana jotzea izan behar da, eta beraiek ere zerbait egin dezaketela ulertaraztea.

Berdintasun zinegotziak erantzun du arestian aipatu duen Beldur Barik gida neskei eta mutileri zuzentzen zaiela baina, erasoak urte osoan zehar gertatzen direnez gero, azaroaren 25aren inguruan banatzea planteatzen dela.

Bilgune Feministak uste du garaia dela Berdintasun, Immigrazio eta Gazteria zerbitzuek proposatzen dituzten ekimenak elkarrekin planteatzeko. Haren iritziz, ikuspegi ezberdinetatik begiratu behar zaio berdintasunari. Esan du zenbait pertsonen hainbat udal dinamikatan parte hartzen dutela bazterketa horiei guztiei aurre egin beharra ikusten dutelako, eta uste dutela elkarrekin konpondu ahalko liratekeela.

EAJren ordezkaria eta Gizarte Zerbitzuen zinegotzia denak esan du udal mailan barneko lantaldeak daudela, zenbait arlo biltzen dituztenak, eta arlo horietako gehienek eskola-eremuko sentsibilizazioa jorratzen dutela. Jaietako kanpainan beste gai batzuk sartzeari dagokionez, iaz eraso arrazistak sartzea eztabaidatu zen, baina berak uste du dena sartu nahi izateagatik mezu nagusia galdu egin daitekeela.

Bilgune Feministak uste du garrantzitsua dela bazterketak interseksionalitateak aztertzea; gaineratu du ikuspegi hori ez duela bakarrik proposatzen jaietako kanpainarako.

Gizatiarrek esan du zenbait udalerritan jaietako erasoei buruzko eztabaida bat egon dela entzun duela, eta kanpainetan parte hartu duten jai batzordeak egon direla. Gallartan, esate baterako, eraso bat dagoenean txosnak geratu egiten dira.

Bilgune Feministaren ordezkariak esan du ez direla erasoak eta txosnak erlazionatu behar.

EAJren ordezkariak esan du jai-esparruari buruz ari dela. Bilgune Feministak erantzun du jai-esparrua herri osoa dela, ez bakarrik txosnen eremua. Uste du tabernetan ere kontzientzia sortu behar dela, parte har dezaten, eta ez bakarrik txosnei begiratu. Erantsi du bere proposamena datorren urteari begira egin duela eta argi izan beharko genukeela jaiak herri osoan direla.

Aztertu beharreko gaiei eta txosnen parte hartzeari dagokienez, Berdintasun teknikariak esan du Bilboko jaietan, esate baterako, *Bilboko Konpartsak* koordinakundeak jarduteko protokolo bat duela aspalditik eraso homofobo, arrazista eta sexistak gertatzen direnerako; berdin gertatzen da beste udalerrri batzuetan.

Berdintasun zinegotziak azaldu du, arestian esan denez, iaz erabaki zela kanpaina bat bakarrik egingo zela sexu-erasoen aurka, baina lelo bakar batean dena jasotzeko kapaz bagara, mezua galdu gabe, planteatu ahalko litzatekeela. Gogorarazi du, era berean, gai hau udal mailan adostu beharko litzatekeela, jaiak ez baitira Berdintasun Zerbitzuaren lana.

Berritzeguneren ordezkariaren ustez, urte honetarako ez luke zentzu handirik izango, gaia aurretik landu beharko litzatekeelako.

Berdintasun zinegotziak esan du datorren urterako gaia Immigrazio, Gazteria eta Berdintasun arloekin landuko dela.

Galde-eskeak

Mujeres con Voz elkarteak sexu-erasoen azken salaketaren ondoren egin diren elkarretaratze-deialdiekin jazo dena argitu nahi du. Haren ustez nolabaiteko koordinazio falta egon zen: elkarteak deialdi bat prestatzen ari ziren eta udalarena iritsi zen. Orduan, beraiek egindakoa mantentzea erabaki zuten elkarteek. Esan du azkenean bi pankarta zeudela eta jendeak ez zekiela ondo zeinetara jo. Azaldu du Mujeres con Voz elkarteak ezin izan zuela joan protokoloa adostu zen Kontseiluaren batzarrerara, eta aurrekoan ez zirela konturatu elkarteek elkarretaratzeak arratsaldean deitzen dituztela beti. Horregatik, hurrengoan nola egin jakin nahi dute; izan ere, gaineratu dutenez, orain martxan jarri da eta arazoak daudela ikusi dugu. Era

berean, adierazi du pertsona batzuk haserretu egin zirela, udala elkarteen lekua hartzen ari zelakoan.

MCVren interbentzioaren ondoren, Bilgune Feministak esan du gauza bat esan gura duela berdintasun zinegotziak erantzun baino lehen. Esan du ezin izan zuela protokoloari buruzko lehenengo batzarrera joan, eta onartzen duela berak ez zuela horren berri eman bere elkarteko kideen artean. Agian bera ere deialdiekin gertatu zen deskoordinazio edo gaizkiulertu horren erantzule izan da neurri batean. Gaineratu du lan kontuengatik eta arazo pertsonalengatik ezin izan zuela horri buruz ezer egin. Argi utzi gura du bere aldetik ez zuela asmo txarrik izan. Ez zuen aktiboki parte hartu udal deialdiaren sabotajetzat har daitekeen ezertan. Esan du badakiela Berdintasun zinegotziak bera non zegoen galdetu zuela, pankarta har zezan, eta aurkitu balute han egongo litzatekeela, koherentziagatik, Kontseiluko kide baita. Esan du badakiela zenbait pertsonak (bere elkartekoak eta bere inguruneakoak) kritikatu egingo luketela han egoteagatik, eta beste batzuek automatikoki pentsatuko dutela bera egon dela beste deialdiaren atzean. Amaitzeko, esan du urte asko daramatzagula herri honetan, eta daturik gabe epaitzen, etiketatzen, kritikatzan etab dugula elkar, gure aurreiritzietan bakarrik oinarrituta, bakoitzaren familia, alderdia, sindikatua, kolorea, arraza etab kontuan izanik bakarrik. Horixe da, hain zuzen ere, landu beharko genukeena, pertsona gisa aurrera egiten eta hazten jarraitu ahal izateko.

Berdintasun zinegotziaren ustez, kasu hau oso estandarra izan zen. Beraz, protokoloa berehala jarri zen martxan. Deialdira etorri zen pertsona kopuruaren balorazio oso positiboa egin da. Uste du, etorri ziren pertsonen adinari eta sexuari dagokienez, udalerraren soziologia egoki islatu zela. Erantsi du harrirituta dagoela koordinazio eza aipatu delako; beraren ustez protokoloa zehatz-mehatz bete zen. Oso erraz aplikatu zen eta dena joan zen ezin hobeto. Gogorarazten du puntu morea genero-indarkeriaren aurkako elkarretaratzeetarako asmatu zela, eta protokoloa talde guztiekin partekatu zela. Esan du ez dagoela ados bi pankarta aukeran egoteari buruz esan denarekin. Izan ere, elkarretaratzeetako batek 15 minutu iraun zuen eta pankarta hori ixtean bestea ireki zen; hau da, ez ziren biak aldi berean ireki.

Gizatiarren ordezkariak uste du ez zela koordinazio faltarik egon. Baina aitortzen du egoerak despistatu egin zuela eta ez zela eroso egon, bi bando zeudela zirudielako. Berdintasun zinegotziak azaldu du bere ustez pankarta Kontseiluko partaideek eraman behar zutela eta horregatik hurbildu zela beraiengana. Zehazki, talde politikoen kasuan, ez zen hurbildu bozeramaileengana baizik eta Kontseiluko partaideengana.

Bilgune Feministaren ordezkariak azaldu du pertsona batzuek, adinagatik edo bizi-erperientziagatik, ez direla egongo deialdi instituzionalean, erakundearen eta mugimendu feministaren artean dagoen distantzia handia delako. Uste du prozesu bat egin beharko dela, eta elkarrengana hurbiltzeko zubi bat, baina distantzia hori ez dela egun batetik bestera gainditzen. Haren ustez, denok lan egin beharko genuke bakoitzari dagokigun esparruan, hurbilketa eta elkar ulertze horiek lortzeko, honelako gertakizunen aurrean baterako deialdiak egiteko beharrezkoak baitira. Gaineratu du batzuetan ez garela jabetzen dagoeneko eman diren urratsez, eta gaizkiulertua sentitzen du.

Berdintasun zinegotziak erantzun dio bere ustez ez dela inolako gaizkiulerturik gertatu. Uste du edonork onartzeko moduko pankarta bat eraman zela (Eraserok ez. No a las agresiones sexuales), eta gainera esan du parte hartzea errazteko asmoz berak proposatu zuela pankartari ez jartzea udalaren logotipoa.

Eskuz esku nahigabetuta agertu da, sexu-eraso guztien aurkako elkarretaratzea den arren eta denok helburu bera izan arren zatiketak daudelako. Haren ustez protokoloak ondo funtzionatu zuen. Berdintasun teknikariak goizean emaila bidali zuen eta beraiek ordezkariari abisua emateko denbora izan zuten, tailerretan informazioa eman zezaten.

EAJren ordezkariaren ustez ere ez zen koordinazio faltarik izan eta ez zen sortu arazorik bakoitza jarri behar zen lekuaren inguruan. Uste du jende mordoan egon zela eta elkarretaratze instituzionala amaitzean beste pankarta zabaldu zela.

Gizatiarren ordezkariak esan du berak atzeman zuela bi bando moduko zeudela.

Berritzeguneak uste du komunikazio falta egon dela, eta garrantzitsua dela protokolo hori nola sortu den eta nola egin den jakitea.

Bilgune Feministak esan du ez dela komunikazio arazo hutsa: badaude erakundeak etsaitzat hartzen dituzten pertsonak, elkarrekin deialdirik egitea nahi ez dutenak. Baina berak onartzen du deialdi feministetara batzuetan jende gutxi etortzen dela. Berdintasun zinegotziak esan du pertsona batzuek sentitu ahal dutela espazioa kendu zaiela, baina horixe dela protokoloan onartu dena. Erakunde gisa zer egitea espero den galdetu du.

Eskuz esku elkarrearen ordezkariak uste du beraren ustez protokolo hau ez dela bakarrik instituzionala, elkarrekin ere parte hartu baitute. Bilgune Feministak baietz erantzun du, baina elkarte guztiak ez daudela Kontseiluan ordezkaturik.

EAJren ordezkariak uste du bakoitzak bere taldeari azaldu behar diola nola egin den protokoloa.

Berritzeguneak esan du bere ustez egokia dela gai hori Kontseilura ekartzea; ez da zertan aldatu behar, baina ondo dago jakitea beste sentsibilitate batzuk daudela.

Eskuz esku minduta dago, hain gai garrantzitsua izanik zenbait pertsonak ez dutelako nahi elkarretaratze instituzional batean parte hartu.

Mujeres con Vozek erantzun du hori errealitate bat dela: batzuek ez dute gauza instituzionaletan parte hartu nahi. Gainera, espazio hori Emakumeen Mundu Martxan erabiltzera ohituta daude eta koordinakunde horrek bere erantzute-protokoloa dauka eraso matxisten aurrean.

Berdintasun teknikariak esan du, feminista gisa, talde feministek ez diotela muzin egiten erakundeen deialdietan parte hartzeari besterik gabe, ezta erakundearen aurkakoak direlako ere, baizik eta indarkeria matxistaren gaian beraien ustez erakundeek ez dutelako euren esku dagoen guztia egiten, ez arretan ez prebentzioan. Erantsi du, hain zuzen ere, azaroaren 25ean talde feministen komunikatuak bereziki salatu zuela ez dela baliabide nahikorik jartzen eta ez direla alor honetako legeak betetzen. Azkenik, esan du emakume talde batzuk ez daudela ados sexu eraso baten ostean isilik elkarretaratzearekin.

Berdintasun zinegotziak gogorarazi dio ez duela feminista gisa parte hartzen Kontseilu honetan, baizik eta berdintasun teknikari gisa. Bestalde, esan du Bozeramaileen Batzarraren erabakiak herritar guztiei dei egiten diela, eta bereziki gonbidatu ditu emakume elkarteak eta Berdintasun Kontseiluan parte hartzen duten erakundeak deialdiarekin bat egitera.

Mujeres con Vozek kontraproposamena egin du, alegia, elkarteek deialdia arratsaldean egitea eta udalak goizean. Berdintasun zinegotziak erantzun du udala dela herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea, eta horrenbestez ezin zaiola eskatu ez dezala ezer antolatu arratsaldean.

Gizatiarrek galdetu du protokoloaren testua aldaezina ote den. Berdintasun zinegotziak ezetz erantzun du; aldatu beharrekoak zuzendu egingo direla, baina kasu honetan ondo funtzionatu duela. Besterik da batzuei ez gustatzea.

HURRENGO BATZARRA, IRAILEAN (EZ DA EGUNA ZEHAZTU)